

Euskal AEko unibertsitateetako ikasleak gutxitu egin ziren zortzigarren urtez jarraian

Gora egin zuen, ostera, unibertsitatera sartu ziren 18 eta 25 urte arteko gazteen proportzioak

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko unibertsitateetan 72.394 ikasle matrikulatu ziren 2004-05 ikasturtean, hau da, aurreko ikasturtean baino %2,9 gutxiago. Horietatik 12.309 ikasle lehenengo aldiz joan ziren unibertsitatera.

Azken bosturtekoan unibertsitateko ikasleak %12,4 murriztu ziren, baina apur bat gehitu zen unibertsitatera sartu ziren 18 eta 25 urte arteko gazteen proportzioa eta %35 ingurura iritsi zen.

Unibertsitatean emakumezkoak gehiago izan ziren gizonezkoak baino, %54 hain zuzen ere, Europar Batasuneko jarrerarekin bat eginez.

Titulartasunari dagokionez, ikasleen %78 sektore publikoan matrikulatu zen eta Euskal Herriko Unibertsitatea nabarmendu zen. Sektore pribatuan, Deustuko Unibertsitateak jaso zituen sarrera gehien. Lurralde-banaketari dagokionez, matrikulatutako guztien %56 Bizkaian ikasten aritu zen, %30 Gipuzkoan eta azkenik, %14 Araban.

Unibertsitateko ikasleen bilakaera, ikasketa-motaren arabera. 2004-05 ikasturtea

	IKASTURTEAK					% Aldakuntza 2004-05/2000-01	% Aldakuntza 2004-05/2003-04
	2004-05	2003-04	2002-03	2001-02	2000-01		
GUZTIRA	72.394	74.557	76.589	78.334	82.637	-12,40	-2,90
Lizentziaturak	31.705	33.768	36.079	38.105	41.075	-22,81	-6,11
Arkitekturek edo ingeniarietak	10.122	10.478	10.641	10.583	10.790	-6,19	-3,40
Diplomaturak	15.113	15.005	15.331	15.575	16.829	-10,20	0,72
Arkitektura edo ingeniarietza teknikoak	12.756	12.709	12.146	11.841	11.642	9,57	0,37
Graduatundokoak	2.698	2.597	2.392	2.230	2.301	17,25	3,89

Iturria: EUSTAT

Ikasketa-motari helduta, lizentziaturetan 31.705 ikasle matrikulatu ziren, ikasle guztien %45. Diplomaturetan %22 matrikulatu ziren, arkitektura eta ingeniarietza teknikoetan %18 eta arkitektura eta ingeniarietzetan %15. Emakumeen presentzia nabarmena izan zen lizentziaturetan (%65) eta diplomaturetan (%71) eta gizonezkoena, berriz, arkitektura eta ingeniarietza ikasketetan (%67) eta arkitektura eta ingeniarietza teknikoetan (%74).


18 eta 25 urte arteko gazteen proportzioa aztertuta, azken bost urteetan lizentziaturetan (%-3,6) atzerakadatxoa ikusi zen, baina gainerako ikasketetan gehitu egin ziren, batez ere arkitektura eta ingeniarietza teknikoetan (%+37).

Estatuko gainerakoekin alderatuta, karrera egiterakoan ikasleen lehentasunak oso antzekoak izan ziren. Estatu osoa kontuan hartuta, pisu handiena lizentziaturek (%49) izan zuten, ostean diplomaturek (%24), segidan arkitektura eta ingeniarietza teknikoek

(%15) eta azkenik arkitektura eta ingeniartzek (%11). Hala ere, esan behar da, Euskal AEn karrera teknikoek proportzioa 7 ehuneko-puntu inguru altuagoa izan zela.

Honakoak izan ziren gehien eskatu ziren titulazioak: Industri ingeniartza teknikoa (7.077), enpresa-zuzendaritza (5.861), irakasle eskola (5.655), enpresa-zientzien diplomatura (4.110) eta zuzenbidea (3.658). Hurrenkera aldatu egiten da, baina, emakumezkoek aukeratutakoak bakarrik kontuan hartuz gero; hona hemen: irakasle eskola (4.308), enpresa-zuzendaritza (3.438), psikologia (2.220), enpresa-zientzien diplomatura (2.182) eta zuzenbidea (2.151).

Unibertsitateko ikasleen banaketa, adarka (%). 2004-05 ikasturtea



Iturria: EUSTAT

karrera teknikoetan 10 ikasletik 7 gizonezkoak izan ziren

Euskal AEko 10 ikasletik 5ek gizarte-zientzien eta zientzia juridikoen alorreko karrerak aukeratu zituzten eta 33.418 izan ziren matrikula egin zutenak. Esan beharra dago zientzia teknikoetan 10 matrikulatuko 7 gizonezkoak izan ziren arren, gainerako adarretan alderantzizkoa gertatu zela eta emakumezkoak izan zirela nagusi.

Ikasketak bukatu zituztenen %60 emakumezkoak izan ziren

2004-05 ikasturtean, 12.611 ikaslek lortu zuten unibertsitate-titulua. Horietatik %93k 1. eta 2. zikloko ikasketak burutu zituzten, eta gainerakoak, hots, 907 ikaslek graduatuondokoak. %60 emakumezkoak izan ziren. Titulartasunari erreferentzia eginez, titulua lortu zutenen %80k Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan egin zuten. 234 ikaslek doktorego-tesia gainditu zuten Euskal Herriko Unibertsitate Publikoan.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00. Faxe: +34-945 01 75 01. Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina

Tel.: 47-945 01 75 47. Faxe: +34-945 01 75 01.

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp